



Garapen Iraunkorrerako Helburuen 2019-20 Txostena



Easo Politeknikoa, Garapen Iraunkorrerako Helburuen 2019-20 Txostena

Egilea: Segurtasuna eta Ingurumena departamentua
Data: 2020ko ekaina

Azaleko Argazkia: *GIHen festa. Bideo eta Kartel lehiaketaren irabazlea: Goizeko Haur Hezkuntza (Adrián Almeida)*



Oharra: Txostena egiteko Nazio Batuen Global Compact sareak eta Euskadiko enpresarien elkarteek (CEBEK, SEA, ADEGI) GIHak erakundeetan txertatzeko sorturiko gida interaktiboa erabili da.



Hizkuntza eta kultur aniztasuna margolanaren moldaketa. Egilea: Maia Etxebarria, Usandizaga BHIko ikaslea.

Aurkibidea

01	Garapen Iraunkorrerak Helburuak	5
02	Konpromezu orokorra	7
03	Easo politeknikoaren egitekoekin lerraturiko GIH	9
04	GIHekiko konpromezu eta praktika onak	13



GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK

2015eko irailean, Nazio Batuen Batzar Nagusiak Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda onartu zuen, eta, horrekin batera, Garapen Jasangarrirako Helburuak (GIH), munduko dei bat, planetako arazo handiekin amaitzeko eta pobrezia amaiera emateko neurriak hartzeko.

Eta desberdintasunari, genero-berdintasunari eta guztientzako lan duina lortzeari, osasun-zerbitzuetarako eta hezkuntza egokirako sarbidea errazteari, ingurumena babesteari eta pertsona guztiak bakea eta oparotasuna izatea bermatzeari.

GJHak garapen jasangarriari laguntzeko esparru nagusi berria dira, 2030 baino lehen bete beharreko 17 helburu eta 169 jomugaz osatua, eta planetako eragile guztiei zuzenduta dago; 2015eko irailean, Nazio Batuen Batzar Nagusiak Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda onartu zuen, eta, horrekin batera, Garapen Jasangarrirako Helburuak (GIH), munduko dei bat, planetako arazo handiekin amaitzeko eta pobrezia amaiera emateko neurriak hartzeko.

Eta desberdintasunari, genero-berdintasunari eta guztientzako lan duina lortzeari, osasun-zerbitzuetarako eta hezkuntza egokirako sarbidea errazteari, ingurumena babesteari eta pertsona guztiak bakea eta oparotasuna izatea bermatzeari.

Eta ezin daiteke albo batera utzi kultura- eta hizkuntza- aniztasunaren babesa, hau ekitatean oinarrituriko giza garapenaren bermea da eta horrela atxikitzen zaio GIHen proposamenari 17+1 helburu modura. Ezin daiteke jendarte iraunkor bat imajinatu ez baditugu pertsona eta komunitateek munduan

egoteko duten moduak babestu eta hauek duten balioa kontutan hartzen .

Eta planetako eragile guztiei zuzenduta dago; gobernuak, enpresak eta gizarte zibila ekintzara deituak izan dira helburu global horiek lortzen laguntzeko. Bideorri horretan, hezkuntza eragileek rol protagonista daukagu.

SDG Compass-en metodologiak, erakunde desberdinei GIHak epe labur eta luzera integratzen laguntzen die, 5 urratsen bidez: 1) Ezagutzea; 2) Lehentasunak definitzea; 3) Helburua ezartzea; 4) Integratzea eta; 5) Adieraztea.

Easo Politeknikoak GIHak eskola komunitatean lantzeko proiektua abiatu zuen 2017an. Proiektu horren “marka” bereizgarria 17+1. helburua da: hizkuntza eta kultur aniztasuna.





KONPROMEZU OROKORRA

Easo Politeknikoaren erronka, ingurune aldagarrirako erkunde adimendun eta iraukorra bilakatzea da. Horretarako 2030 agenda eta bere osagarria den hizkuntza eta kultura aniztasunaren 17+1 helburua bere egin eta erakundearen plan estrategikoaren egituratzaile modura kokatzen ditu.

Erakundearen oinarria ikasleak dira, ikasleak eta hauen bizitzarako formakuntza.

Easo Politeknikoak 2030 Agendaren oinarrian den **inor bazterrean utzi gabe mundua eraldatu** leloa bere egiten du eta ekarpen esanguratsua egiteko borondatez, 17+1 GIHen proposamena eskolako egunerokoan eta hezkuntza prozesuetako formakuntza programen oinarrietan txertatzeko konpromezua hartzen du.

Bide horretan, beharrezkoak diren baliabideak bermatuko dira eta honela 2030 Agendaren proposamenak ikasleen formakuntzan modu esanguratsu eta eraginkorrean uztartzea bilatuko da.



EASO POLITEKNIKOAREN EGITEKOAREKIN LERRATURIKO GIH-AK



3. helburuak helmuga hauek ditu: ama- eta haur-hilkortasunaren munduko tasa murriztea, guztientzat osasun-estaldura unibertsala eta sexu- eta ugalketa-osasuneko zerbitzuetarako sarbidea lortzea, gaixotasunen epidemieiei amaiera ematea, tabakoarekin, alkoholarekin eta bide-istripuekin lotutako heriotzak murriztea, eta osasunaren ikerketa eta finantzaketa sustatzea.



4. helburuak honako hauek bermatu nahi ditu: pertsona guztiek doan, ekitatiboki eta kalitatez hezi ahal izatea, hezkuntzan genero-desberdintasunak ezabatzea, pertsona kalteberak berdintasun-baldintzetan sar daitezzen bermatzea eta bizimodu jasangarriak eta giza eskubideak oinarri hartuta, garapen iraunkorrerako hezkuntza sustatzea.



Gure gizarteak funtsezko erronkei aurre egin behar die oraindik ere, berdintasun erreala eta eraginkorra lortzeko. Ordenamendu juridikoan berdintasuna aitortu bada ere, eta azken urteotan aurrerapen esanguratsuak egin badira ere, oraindik ere diskriminazioak daude, muturreko formetatik hasi (indarkeriaren biktima diren emakumeek pairatzen dituztenak, esaterako) eta eremu guztietan egunez egun gertatzen diren diskriminazioa modu txikienetaraino.



8. helburuak hazkunde ekonomiko iraunkorra eta inklusiboa lortu nahi du, pertsona guztiei berdin mesede egingo diona eta ingurumenari kalterik egingo ez diona. Langile guztientzat lan-eskubideak babestea eta lan-ingurune segurua eta arriskurik gabea sustatzea. Hori lortzeko, pertsona guztientzako enplegu duina sortu beharko da, batez ere emakumeentzat, gazteentzat eta egoera ahulean dauden beste talde batzuentzat, ekintzailtza eta berrikuntza teknologikoa bultzatuz.



Berrikuntza hazkunde eta garapen ekonomikoaren funtsezko eragilea da. Energia berriztagarria gero eta garrantzitsuagoa da, bai eta industria berrien eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien hazkundera ere.

Aurrerapen teknologikoak ere funtsezkoak dira ekonomia- eta ingurumen-erronkei irtenbide iraunkorrak aurkitzeko, bai eta enplegu berrien eskaintza ere. Iraunkortasuna bultzatzeko beste modu batzuk industria jasangarriak sustatzea eta ikerketa eta berrikuntza zientifikoetan inbertitzea dira. Eten digitala murriztea funtsezkoa da informazioa eta ezagutza berdintasunez eskuratzea bermatzeko, eta berrikuntza eta ekintzaitza sustatzeko.



13. helburuak klima-aldaketa funtsezko gai gisa txertatu nahi du herrialdeen, enpresen eta gizarte zibilaren politika, estrategia eta planetan. Klima larrialdiak sortzen dituen arazoei, hala nola hondamendi naturalei, erantzuna hobetu eta herritar guztien hezkuntza eta sentsibilizazioa bultzatu behar dira.



Munduan 6.000 hizkuntza inguru daude bizirik, gutxi gorabehera munduko hizkuntzen %50 desagertzeko arriskuan dago. Munduko hizkuntzen %96 biztanleen %4k soilik hitz egiten ditu eta Interneteko edukiaren %90 12 hizkuntzetan bakarrik dago.

Egoera honi aurre egin eta gizartearen garapen justua lortzeko hizkuntza eta kultura guztien presentzia eta aintzatespena bermatu behar dira. Identitate desberdinak indartzeko hizkuntza gutxiagotuak dituzten komunitateak ahaldundu eta ezagutarazi behar dira. Lege egokiak eta hizkuntza politika eraginkorrak bultzatu eta tokiko hizkuntzen integrazioa lortu behar da hezkuntza sistemetan. Hezkuntza eredu elebi/eleanitzak bultzatuko dira, beti ere hizkuntza gutxiagotua modu eragingarrian irakasten dela ziurtatuz. Eten digitala murriztu eta

teknologia berriak hizkuntza guztietan, batez ere gutxiagotuetan, eskuragarri jarriko dira eta hizkuntza gutxiagotuen presentzia bermatuko da hedabidetan, zerbitzu publikoetan, eta batez ere osasunaren eta justiziaren alorrean.



GIH-EKIKO KONPROMEZU ETA PRAKTIKA ONAK



Ekintza/Proiektua

COVID 19aren krisia dela eta, eskolako baliabideak krisiari aurre egiteko borrokaren alde jarri ziren, honela irakasle talde batek eskolako 3D inprimagailuak erabilia birusarekin aurrez-aurre aritzen ziren pertsoneri babesa emateko aurpegi pantailak egin eta banatu zituen komunitateko eragile desberdinan artean (osasun langileak, zahar egoitetako zaintzaileak, botiketako langileak e.a.)

Horrez gain, eskolan osasuna eta ongizatearekin loturiko ekintza eta proiektuak bultzatzen dira, ala nola, Easongizatea proiektua, odol erauzketa saioak edota aho eta hortz garbiketa kanpainak.





Konpromiso kuantifikagarria

Eskola metodologia kooperatibotara bideratzen ari dira. Eskolako plan estrategikoan ondorengo jasotzen da: 2019-20an zikloen % 100ek, gutxienez, guztiz dokumentatutako erronka bat dute. 2020-21an Zikloen % 100ek gutxienez hiruhileko bat dute lankidetzeta-metodologiarekin. 2021-22an Zikloen % 100ek gutxienez ikasturte bat dute lankidetzeta-metodologiarekin.



Prestakuntza/Sentsibilizazioa

Mekanizazioko Ikasleen panela

Hildo horretan aurtengo ikasturtean GIHak eskolako ziklo desberdinetan txertaketa lantzeko erronka bat landu da.




























Ingurumen hezkuntza eta Kontrola ziklokoikasleek 17+1 GIHen proposamena Easo Politeknikoko 5 zikloetako eta Mutrikuko Kardala Akuakultura eskolako ikasleekin landu dute, modu horretara, lan kooperatiboa eginez ikasleek euren ziklo formatiboa GIHen proposamenean kokatzen saiatu ziren eta talde bakoitzak zikloari zegozkion GIH nagusiak aukeratu zituen, panel bat eta bideo bat sortu zituzten aukeraketa hori sozializatzeko. Talde bakoitzak bere erronkan egindako lana aurkezteko GIH festa ospatu zen zentroan eta bertan.

(Maitane Lizaso)



Easoko erronkan parte-hartu zuen Mutrikuko Kardala Akuakultura eskolako ordezkariak aurkezpena egiten (Maitane Lizaso)

GIH ERRONKA 2019/20 - IKASLEEK EUREN ZIKLOEKIN LERRATU ZITUZTEN HELBURUAK

Zikloa/Taldea	Aukeraturiko Helburuak			
Mekanizazioa	 6 EDATEKO URA ETA SANEAMENDUA	 9 INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA	 12 EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUA	 14 URETAKO BIZITZA
Haur Hezkuntza goizeko taldea	 3 OSASUNA ETA ONGIZATEA	 4 KALITATE ONEKO HEZKUNTZA	 16 BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK	 17+1 HIZKUNTZA ETA KULTUR ANIZTASUNA
Haur Hezkuntza arratsaldeko taldea	 4 KALITATE ONEKO HEZKUNTZA	 5 GENERO- BERDINTASUNA	 17+1 HIZKUNTZA ETA KULTUR ANIZTASUNA	
Gizarte eta Kirol animazioa eta Irakaskuntza	 3 OSASUNA ETA ONGIZATEA	 4 KALITATE ONEKO HEZKUNTZA	 10 DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA	 17+1 HIZKUNTZA ETA KULTUR ANIZTASUNA
Ingurumen Hezkuntza eta Kontrola	 13 KLIMA BABESTEKO EKINTZA	 14 URETAKO BIZITZA	 15 LEHORREKO BIZITZA	 17+1 HIZKUNTZA ETA KULTUR ANIZTASUNA
Instalazio Elektrikoak eta Automatikoak	 3 OSASUNA ETA ONGIZATEA	 7 ENERGIA ESKURAGARRI ETA EZ-KUTSATZAILEA	 8 LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA	 9 INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA
Uretako Hazkuntza <i>Kardala Mutrikuko Akuakultura Eskola</i>	 7 ENERGIA ESKURAGARRI ETA EZ-KUTSATZAILEA	 9 INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA	 12 EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUA	 14 URETAKO BIZITZA



Konpromiso kuantifikagarri


Eskolak genero ikuspegia eta berdintasuna sustatzeko konpromezua du eta horren adierazgarri dira aurtengo ikasturtean, kanpoko teknikari baten laguntzaz burutu diren diagnostikoa eta plana dira. (*Easo Politeknikoan emakume eta gizonen berdintasunaren egoeraren diagnostikoa; Emakumen eta gizonen berdintasunerako I. plana 2020-24*).



Prestakuntza/Sentsibilizazioa

Prebentzio departamentuko ikasleek, erronka bat burutu zuten COVID-19aren berrogeialdiaren erdian. Nazioarteko prebentzio astearen harira, telematikoki Easo Politeknikoko ikasleen artean prebentzioaz sentsibilizatzeko ekimen desberdinak burutu zituzten:

kahoot plataforma bidezko lehiaketak, bideo tutorialak, inkestak e.a.



*Prebentzio astearen kartela
(Kevin Castaño eta Irati Gómez de las Heras).*

Industria, Berrikuntza eta Azpiegitura



Konpromiso kuantifikagarria:

Eskolako plangintzaren helburuetako bat (3.1.), berrikuntzaren eta kultura sortzaile aktiboaren kultura sortzea da.

Ekintza/Proiektua

Berrikuntza eta sormenarekin loturiko proiektu eta ikasleei transferentzia-ekintza ugari garatzen dira eskolan, adibidez: Cibersegurtasuna (Elektrizitatea-Elektronika), Tiny House (Zurgintza eta Altzarigintza), BIM (Eraikuntza eta Obra zibila), Hortza Adin (Aho eta Hortz higieena), AdinBerri (Pertsonentzako arreta), Protesien diseinua (Fabrikazio mekanikoa), Ehunen analisisa (Anatomia patologikoa), Erasmus + (Ingelesa), Ekintzaitetza-huba eta Crowfundinga (LPO eta bitxigintza)

Klima babesteko ekintza



Ekintza/Proiektua

Eskolara ikasturtean zehar 100 irakalsetik gora etortzen dira egunero, haietako asko Donostialdeatik kanpokoak dira, garraoi moduetan auto partikularraren partekatzeke ekimana martxan jarri da.

Prestakuntza/Sentsibilizazioa

Ikasturte honetan Agenda 21eko gain zentrala klima krisia izan da. Horren inguruan Easo Politeknikoa eta Zubiri Manteo ikastetxeek azken urteetan garatu duten karbono aztarna neurtzeko aplikazio informatikoa erabiltzeko prestakuntza saioa eman da, Donostiako Agenda 21eko ordezkariarentzat.

Hizkuntza eta kultur aniztasuna



Konpromiso kuantifikagarria

GIH 17+1 helburuak eskolako plan estrategikoan, erakundearen etikaren eremu estrategikoan erantzunkizun sozialaren lerro egituratzaile biurtzea.

Ekintza

Ikasturtean zehar euskara eta hizkuntzen aniztasunaren garrantziari buruzko kontzientzia pizteko saioretan parte hartu da: ekolingua, eusakraren eguna, hitzaldiak...

Proiektua

Hizkuntza lankidetzan ekarpena egin da, Euskal Herriko Garabide Elkarte eta Euskal Herriko Munduko Hizkuntzaren Ondarearen UNESCO

Katedrarekin elkarlanean Kolonbiako nasa herriaren Nasa Yuwe hizkuntzaren biziberritze prozesuko formakuntza parte-hartu da.



Aliantza estrategikoa

EHUko Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedrarekin eta Garabide Elkartearekin 17+1 helburua euskal gizartean, hezkuntza munduan eta lankidetzan arloan zabaltzeko elkarlana sendotu da, horretarako hainbat jardunaldi, proiektu eta argitalpenetan parte-hartu delarik.

Ordezkarien indigenen hitzaldia (Rebeca de la Fuente)



